

Funtsezko jarduerak

Funtsezko jarduerak, negozioa aurrera ateratzeko egin behar diren jarduerak multzoei esaten diegu. Bertan, hiru jarduerak desberdin bereizten ditugu:

- 1.- Produkzioa da, bertan, diseinua, kantitatea eta banaketari buruz arituko gara.
- 2.- Bezeroak dituzten arazoei buruzkoa da eta nola konponduko ditugun azalduko dizuegu.
- 3.- Sareko jarduerak dira, hau da, internet bidezkoa.



Gure funtsezko jarduerak nagusia, aisialdirako baliabide seguru, egoki eta entretenigarri bat eskeintzea da, negozioaren ardatza web gunea bera delarik. Hau posible izateko, web orriak, musika, pelikulak, telesailak ipiniko ditugu, bezeroen gustuei aurrez aurretik erreparatuta. Bigarren maila batean, esan dezakegu, web orri hau erabilita, gauza asko ikasi ditzakeela bezeroak, bereziki pelikulekin, pelikulak, lehengo eta oraingo gauza asko ikasteko ere balio dutelako.



Lehenik eta behin, gure produktua ekoizteko, web orria diseinatu behar dugu. Hau aurrera eramateko, internet sarea erabiliko dugu batik bat, gure web gunearentzako diseinu egokiak daudela uste baitugu. Web orria diseinatu ondoren, internet sarera igoko dugu bezeroek gure produktua erabil dezaten eta horrela guk diru sarrerak eskuratzeko/lortzeko. Kantitateari buruz hitz egiterakoan, sentsazio bakoitzeko (bost dira), 10 pelikula, 10 telesail eta 10 musika sartuko ditugu hasiera batean, denbora aurrera pasa hala eta lortzen dugun diruaren arabera, gehiago sartzen joango gara.



Dena internet bitartez izango da, beraz, banaketa edo bezeroarengana iristeko bidea ere bertatik izango da. Beraz, esan dezakegu, bide erraza eta konplikazio gutxikoa dela, hau da, oso era eroso batean aurrera emango dela. Gainera, ondoren datorren puntuari aurre hartuta, arazorik izanez gero segituan konpontzeko aukera emango da.





Handik aurrera, bezeroari web orriarekin arazoren bat edukiz gero, laguntza eskatzeko atal bat edukiko du. Beren arazoak konpontzeko, bertako langileek edo enpresa informatikoak konponduko dituzte, horrela lortuko dugu bezeroa arazorik gabe gure web orrian gustura aritzea eta horrela, beste batean berriro gure web orria erabiltzea lortuko genuke.

Gure web orriak izango dituen diru sarrerak eta gastuak, gure kontu korrante propiora iritsiko dira eta bertatik dena administratuko dugu. Diru sarreren parte bat web orriaren hobekuntzarako erabiliko da, hau da, web orria eguneratzeko eta gauza gehiago sartzeko. Beste partea aldiz, gobernuz kanpoko erakundetara zuzenduta egongo da.



Azkenik, ordenagailuen, langileen mantenimendu, etab egokia gauzatu behar dugu, horretarako, lortzen ditugun diru sarrerekin aurrera eramango ditugu. Beraz, web orria aurrera eramateko, langile kualifikatuak hautatuko ditugu gure web orria aurrea atera dezagun. Komenigarria litzateke, erabiliko ditugun ordenagailuak azken generaziokoak izatea web orriak eman dezakeen arazoak konpontzeko.